
Jasangarritasun Politika 2021eko maiatza



Edukien taula

1. Sarrera	3
Kutxabanken jasangarritasuna: aurrekariak eta etorkizuneko ikuspegiak.....	3
Testuinguru arauemailea eta erabilitako erreferentziak	3
2. Aplikazio eremua	5
3. Helburu korporatiboak	6
4. Jarduteko ildo nagusiak	7
Jasangarritasunaren kudeaketako printzipio orokorrak	7
Jarduteko eremu nagusiak	8
5. Gobernantza	11

1. Sarrera

Kutxabanken jasangarritasuna: aurrekariak eta etorkizuneko ikuspegiak

Kutxabank S.A. (aurrerantzean, "Kutxabank" edo "erakundea") jasangarritasunarekin konprometituta dagoen erakundea da, izaera sozial nabarmena duena, eta IGG (Ingurumen, Gizarte eta Gobernantza) alderdiak integratzen dituena bere negozio eredian eta intereseko taldeekiko harremanetan. Ezaugarri hauek agerian jartzen dira bere xede eta ikuspegi korporatiboen definizioan.

Kutxabanken xedea da balio ekonomikoa eta soziala era jasangarrian sortzea, eskaintza finantzario aurreratu, berritzaile eta kalitatezkoarekin. Aldi berean, bere xedeak sozialki arduratsua izateko konpromisoa jasotzen du; horretarako, eremu ekonomikoan eta sozialean zein ingurumenekoan duen jardueraren eragin positiboa maximizatzeko bokazioa ezarri da, hori guztia negozio eredu zuhur batekin eta bere bezeroekin epe luzerako harreman bat ezartzean zentratuta.

Erakundearen bokazio soziala, zalantzarik gabe, enpresa eredu berdingabearen oinarritzen da; izan ere, mozkinen % 100 gizartera itzultzen da. Alde batetik, bere dibidendu guztiak Banku Fundazio akziodunen Gizarte Ekintzek garatzen dituzten jardueretara eta proiektuetara bideratzen dira; aldiz, atxikitako mozkinak kaudimena indartzen dute eta, beraz, baita bere negozioaren jasangarritasuna ere.

IGG faktoreak integratzeko beste pauso bat bezala, Kutxabankek Jasangarritasun Politika hau garatzen du, gizarte jasangarriago bat lortzeko trantsizioan agente aktibo bat izateko nahia baitu.

Testuinguru arauemailea eta erabilitako erreferentziak

Jasangarritasun Politika hau egitean, erakundeak kontuan izan ditu jasangarritasunaren arloko hainbat antolakunderen zenbait erreferentzia eta gomendio. Jarraibide horiek, halaber, gidak izango dira banku jasangarriaren eredia bermatzen jarraitzeko, erakundea gauzatzen ari den prozesuetan.

Erabilitako erreferentzietan hauek nabarmentzen dira:

- Nazio Batuen Erakundeak sustatutako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH), gizarte justuago bat lortzeko bidea ezartzen dutenak.

- Parisko hitzarmenak, Europar Batasuneko Itun Berde Europarraren bide orriarekin batera, emisio txikiko ekonomia lortzeko aldaketa prozesua definitzen du, 2050erako klima neutraltasuna lortzeko erronkarekin.
- Europar Batasuneko Finantza Jasangarrien Planaren helburua da jarduera finantzarioak, irizpide finantzario tradizionalak kontuan izateaz gain, ingurumeneko, gizarteko eta gobernanzako irizpideak kudeatzeko eredia txertatzea.
- Gainera, kontuan izan dira Europako Banku Agintaritzaren, Europako Banku Zentralaren, Espainiako Bankuaren eta Banku Zentralen Sarearen eta Sistema Finantzarioaren Ekologizatorako Gainbegiratzailen gomendioak, baita Financial Stability Board-en (FSB) Task Force on Climate-Related Financial Disclosures-ek (TCFD) ezarritakoak ere. Azken horrek klima aldaketaren arriskua identifikatzea, ebaluatzea eta kudeatzea sustatzen du erakunde finantzarioetan, baita informazio finantzarioa zabaltzea ere. Bere helburua da inbertitzaileek, mailegu emaileek eta aseguratzaileek zuzenago ulertzea klima aldaketaren arriskuak eta, beraz, erraztea horiek guztiek erabakiak hartu ahal izatea.

Klima aldaketaren aurkako borroka funtsezko helburu bihurtu da gure gizartearentzat, zeren sistemako agente guztien inpaktu ekonomikoetan eta sozialetan eragiten du. Parisko hitzarmenak 2015ean ezarritako helburuek eta Europar Batasunaren bide orriak (Itun Berde Europarra izenekoak) emisio txikiko ekonomia lortzeko aldaketa prozesua definitzen dute, 2050erako klima neutraltasuna lortzeko erronkarekin. Horrek esan nahi du eredu ekonomikoa, produktiboa eta soziala aldatuko direla, arriskuak eta aukerak birdefinituko baitira, eta Kutxabankek hori guztia bere negozio eremuan txertatuko du pixkanaka.

COP 25en sinatzailea denez, erakundeak paper nabarmena du emisio txikiko ekonomia lortzeko trantsizio honetan.

2. Aplikazio eremua

Jasangarritasun Politikari buruzko dokumentu hau Kutxabank Taldean (aurrerantzean, "Taldea") aplikatuko da, eta zuzenean aplikatuko zaie langile, zuzendari eta Kutxabanken Gobernu Organoko kide guztiei.

Enpresa Erantzukizun Sozialaren Politikan jasotako jarraibideen eta orientazioen jarraipena denez, Jasangarritasun Politika honek hura osatu eta ordeztuko du, azkeneko aldiz eguneratu eta 2019eko otsailean onartu ondoren.

Zeharkako Politika honek Taldearen jasangarritasun arloko jarduketa esparrua ezartzen du, Taldea osatzen duten sozietateek Politika honetan jasotako konpromisoak txerta ditzaten dagozkien jarduera eremuetan, proportzionaltasun irizpideekin.

3. Helburu korporatiboak

Jasangarritasunarekiko duen konpromiso irmoaren ondorioz, Kutxabankek hainbat helburu ezarri ditu arlo honetan, eta hauek dira dokumentu hau onartutako egunean:

- **Negoio eredu jasangarrian aurrera egitea**, hala jarduera korporatiboaren nola finantzarioaren eragin positibo ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa maximizatzen saiatzeko.
- **Epe luzerako merkataritza harremanak ezartzea eta garatzea** bezeroekin eta hornitzaileekin, gertutasunean, gardentasunean eta jardunbide egokietan oinarrituta.
- **Produktuen eta zerbitzuen eskaintza egokitzea** gero eta jasangarriagoak diren negozio ereduen eta bizimoduen eskaera berriari erantzuteko.
- **Erakundearen erabaki estrategikoetan IGG alderdiak txertatzen aurrera egitea**, bereziki klima aldaketatik sortzen diren arriskueta eta aukeretan.

Helburu hauen aurrerapen maila monitorizatzeko, erakundeak adierazle lotuak identifikatzeko prozesu bat gauzatuko du, eta bere Gobernu Organoei hala negozio eremuko nola arriskuen kudeaketako bere bilakaeraren berri emango die.

4. Jarduteko ildo nagusiak

Jasangarritasunaren kudeaketako printzipio orokorrak

Taldea osatzen duten sozietateen jarduketa eremuei une bakoitzean aplikatu beharreko araudia zorrotz betez, bere jarduera egiteko konpromisoa hartzen du Taldeak. Premisa honekin, jasangarritasun arloko jarduketa ildo nagusi hauek ezartzen ditu Taldeak:

- **Epe luzerako ikuspegia sustatzea.** Kutxabanken helburua da balioa era jasangarrian sortzea, eta intereseko talde guztiak inplikatzeko balioaren sorkuntza horretan, gertuko harremana eta epe luzekoa sustatuz.
- **Inklusio finantzarioa sustatzea** irisgarritasunaren ikuspegitik.
- **Lan arloan aukera berdintasuna bermatzea** pertsonak hautatzeko, sustatzeko eta garatzeko politiketan, dibertsitatea, aukera berdintasuna eta genero, arraza, adin edo beste zirkunstantzia batengatiko diskriminaziorik eza errespetatuz.
- **Araudia betetzeko eskakizunak ezartzea** hornitzaileekiko harremanetan giza eskubideen errespetuaren, ingurumen babesaren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren printzipioei buruz.
- **Kapital pribatuaren fluxuak inbertsio jasangarrietara birbideratzea**, bezeroei lagunduz negozio eredu jasangarriagoak lortzeko trantsizioan. Horretarako, aurrera egingo da ingurumeneko, gizarteko eta gobernantzako irizpideak txertatzen dituzten finantziario jasangarriko produktuak garatzen.
- **Jasangarritasuna integratzea arriskuaren kudeaketan.** Ingurumeneko, gizarteko eta gobernantzako arriskuak pixkanaka txertatzea bezeroen eta proiektuen finantzazio arriskuaren analisian, baita aktiboen kudeaketan ere. Erakundeak aurrera egingo du adierazleen definizioan eta arriskuen politiketan txertatuko ditu. Horrela, arriskuen mapan klima eta ingurumeneko arrisku faktoreen inpaktuak kudeatzeko arriskuak txertatuko dira.
- **Gardentasuna sustatzea.** Erakundeak konpromisoa hartzen du bere akziodunei eta inbertitzaileei informaziorako sarbidea bermatzeko, intereseko taldeei arreta arina eta kalitatezkoa emateko elkarriketa kanal egokiak ezartzeaz gain, jasangarritasunaren kudeaketako aurrerapenak jakinaraztea barne.
- **Sentsibilizazioa sustatzea** hala barnekoa nola kanpoko ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren erantzukizun printzipioekiko.

Jarduteko eremu nagusiak

BEZEROAK

Kutxabank bere jarduera garatzen duen ekosistema finantzarioetako sustatzaile nagusia da. Bere gobernantza ereduak, merkatutako diziplinak eta bere kudeaketa ereduaren jasangarritasunak erakundea sektorearen buru bihurtzen dute konfiantzari dagokionez; balio hori sendotu egiten da bere bezeroekin mantentzen duen gertuko erlazioari eta erlazio gardenari esker.

Arlo horretan, erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Bezeroekin gertutasunean eta konfiantzan oinarritutako harreman bat ezartzea, epe luzerako harreman bat sustatuz.
- Kalitate handieneko produktuen eta zerbitzuen eskaintza bat garatzea, bezero bakoitzaren profilari egokituta, bezeroaren beharrei erantzuteko, bai aurrez aurre bai teknologia berriek eskaintzen duten gertutasunarekin eta berehalakotasunarekin.
- Produktu eta zerbitzu gardenak eskaintzea, ulertzeko eta jarduteko errazak direnak. Irtenbide argiak eta efektiboak ematea, prozesuak sinplifikatzen dituztenak eta bezeroen kudeaketak errazagoak, erosoagoak eta azkarragoak bihurtzen dituztenak.
- Etikan eta zintzotasunean oinarritutako negozio eredu bat garatzea. Kudeaketaren gardentasuna eta gobernantzako jardunbide egokiak kontuan izanda, bere plantillak prestakuntza espezializatua eta profesionaltasuna izatea.
- Bere bezeroen datuen konfidentzialtasuna babestea, segurtasun estandar altuenekin.
- Bezeroarekiko harreman modu berrietara egokitzea, produktuei eta zerbitzuei buruzko ideia berriekin, erronka teknologikoari erantzuteko helburuarekin. Bezeroei laguntzea gizartea bizitzen ari den digitalizazio prozesuan.
- Bezeroei laguntzea hobeto kudea dezaten beren eremu finantzarioa, hezkuntza finantzarioa sustatuz.
- Inklusio finantzarioa sustatzea, ahalik eta pertsona gehienek produktueterako eta zerbitzuetarako sarbidea izatea sustatuz.
- Bezeroekin elkarrizketa kanalak ezartzea, bezeroen kontsultei eta erreklamazioei arreta emateko beharrezkoak diren bitartekoekin, eta erantzun pertsonalizatuak, arinak eta kalitatezkoak eskaintzeko.

LANTALDEA

Arlo horretan, erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Pertsonak kudeatzea dibertsitatearekiko eta aukera berdintasunarekiko errespetuarekin, genero, etnia, adin edo desgaitasunagatiko inolako diskriminaziorik gabe.
- Kutxabank taldea osatzen duten pertsonen segurtasuna eta ongizatea babestea, lanerako ingurune osasungarri eta jasangarri bat sortuz.
- Bizitza pertsonala eta profesionala uztar daitezela sustatzea, berdintasun planean ezarritako irizpideen arabera.
- Jasangarritasunaren eta boluntarioritza korporatiboaren kultura taldean txertatzea.
- Talentuaren garapena sustatzea, eta garatzeko eta egokitzeko gaitasuna duten profilak identifikatzen dituen hautapen sistema baten alde egitea, etengabeko prestakuntza plan bat mantenduz.
- Balorazio sistema bat garatzea, ibilbide profesional bat sortu ahal izateko eskumen zehaztuekin.
- Barneko komunikazioa eta elkarrizketa sustatzea.

HORNITZAILEAK

- Kontratazio prozesuetako gardentasuna bermatzen da. Prozesu horiek prozedura lehiakorren bidez garatuko dira, kontratatu beharreko zerbitzuaren izaera dela-eta justifikatutako kasuetan izan ezik. Era berean, hautaketa prozesuetan parte hartzen duten erakundeko pertsonen objektibotasuna bermatzen da.
- Oinarrizko giza eskubideekiko eta laneko eskubideekiko errespetua eskatzen du bere jarduera gauzatzean.
- Jardunbide jasangarriak sustatzen ditu kontratuko klausulen bidez. Munduko Itunaren printzipioak aplikatzea, giza eskubideekiko eta lan arauetikiko errespetua, ingurumena babestea, ustelkeriaren aurkako borroka, konfidentzialtasuna babestea eta informazio tratamenduko segurtasuna bermatzen du.

AKZIODUNAK ETA INBERTITZAILEAK

Kutxabank Taldeak inbertitzaile instituzionalekin ohiko harreman bat ezartzeko eta garatzeko konpromisoarekin lan egiten du, etengabe informazio nabarmena emateko helburuarekin, zintzotasun eta gardentasun irizpideen arabera.

- Uste dugu arlo finantzarioko eta bestelako arloetako erakundearen egoerari buruzko informazio fidagarria publikoki zabaltzea oinarria dela inbertitzaileekin, akziodunekin eta intereseko taldeekin konfiantza esparru egoki bat ezartzeko.
- Helburu hau dela-eta lankidetzan harremanak ezar daitezke, eta bi aldeei mesede egiten dieten ekimen integratzaileetan gauzatzen dira.

GIZARTEA

Gizartearekiko konpromisoa argiki txertatuta dago erakundearen xedean, balio ekonomikoa eta soziala era jasangarrian sortzeko helburua baitu. Bere negozio ereduaren egonkortasunari, arrisku ertain-txikiko profil bat mantentzeko eta bere kaudimen maila altuari esker Gizarte Ekintza propioak garatzen dituzten Banku Fundazio akziodunei dibidendu errepikari bat eskain dakieke.

Gainera, gizartearekiko duen harremanean, erakundeak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Herritarrekin bere ezagutza finantzarioa partekatzea.
- Banku Fundazio akziodunekin elkarlanean aritzea ingurumenean eta gizartean inpaktu positiboa duten proiektuen finantzazioan.
- Gizartearentzako jarduketan positiboak babestea boluntariorik korporatiboaren bidez.
- Jardunbide egokiak zabaltzea eta gizartea sentsibilizatzea garapen jasangarriaren arloan.

5. Gobernantza

Jasangarritasun Politika honek 2019ko otsailean onartutako Enpresa Erantzukizunaren Politika ordeztzen du. Taldeko sozietateen Gobernu Organoek erabaki egokiak hartu beharko dituzte Politika honetan ezarritako jarraibideak txertatzeko.

Administrazio Kontseiluak onartu behar ditu Politika hau eta ondorengo aldaketak, Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Batzordeak eta Zuzendaritza Batzordeak aurrez txostena eginda. Zuzendaritza Batzordeak edo erantzukizun hori duen bestelako organo betearazle batek onartuko ditu Politika honetan zehaztutako edukiak garatzeko behar diren politikak eta prozedura eskuliburuak.

Jasangarritasunarekin lotutako jarduketaren definizioa eta gauzatzea zeharkakoak dira; beraz, Politika hau garatzeak lan ildoak sortzen ditu erakundearen arlo desberdinetan.

Bere jardueraren ezagutza partekatzeko eta koordinatzeko helburuarekin, erakundeak 2020an klima aldaketaren lantalde bat sortu zuen, eta bertan parte hartzen dute Jasangarritasun Politika honek ezarritako helburuekin inplikaturako arloek.